

**“OINEZKO, TXIRRINDULARI, ZURE BIZITZA GURUTZATU EZ DEZATELA”  
IV . LEHIEAKETAREN OINARRIAK, EUSKAL AUTONOMÍA ERKIDEGOA**

Stop Accidentes EAE-k abian jarri dugu “OINEZKO, TXIRRINDULARI, ZURE BIZITZA GURUTZATU EZ DEZATELA” IV. ARGAZKI LEHIAKETA, Euskal Herriko edizioa, non hautatutako hamabi argazki onenekin erakusketa ibiltari bat egingo dugu, herritarrengan mugikortasun seguruari buruzko hausnarketa bultzatzeko asmoz.

### **1. HELBURUAK**

- Argazkigintza adierazpen sozial bezala erabiliz, bideetako arazoak agerira ekartzea.
- Oinezko edota bizikletarientzako egoera arriskutsuak agerian jartzen dituzten argitaratu gabeko argazkiak lortzea.
- Irudien bidez, erakusketa ibiltarira hurbilduko direnengan hausnarketa sustatzea.
- Konponbideak bilatzea.

### **2. PARTE HARTZAILEAK**

Euskal Autonomia Erkidegoan bizi den 16 urte gorako edozeinek hartu dezake parte.

### **3. GAIA**

Oinezkoentzako edota bizikletarientzako arriskutsuak diren egoerak agerian jartzen dituzten irudiak; bide erabiltzaileek beraiek edota beste batzuek eragindakoak, baita inguruko hiri-altzari, seinale ezegoki, oztopo arkitektoniko eta abarrek sorturiko arriskuak ere.

### **4. ARGAZKIEK BETEBEHARREKO BALDINTZAK**

- Parte hartzaile bakoitzak, **gehienez, bi argazki** aurkeztu ahal izango ditu. Bietatik onena hautatuko da, sari bakarra izanik, beraz.
- Argazki guztiak **originalak eta argitaratu gabeak** izango dira. Beste lehiaketa batzuetara bidalitakorik edota argitaratzeko bidean dagoenik ez da onartuko.

Parte hartzaileek beren gain hartuko dute erantzunkizuna lanak originalak eta beraiek egindakoak direla bermatzeko, Jabetza Intelektualaren Legeak dioenari jarraituz. Honela, lehiaketa honetara aurkezte hutsarekin, lanak argitaratu gabeak eta originalak direla bermatuko dute, baita beronen titulartasuna ere.

- Argazkiek **bide segurtasunaren inguruan mezu bat izango dute izenburutzat.**
- **Muntaiak egiteko balio duten edozein moldaketa teknika** erabil daiteke, Photoshop edo beste batzuk.
- **Formatua** ondorengoa izango da: **digitala**, itxura **horizontala**; argazkiak DIN-A1 neurrira (594 x 841 mm) handitu ahal izateko besteko **bereizmena**; eta **JPG** artxibo mota.

Lanak lehiaketaren gaiari eta edukiei egokitu beharko zaizkie; baldintza hauek bete ezean, kanpoan geratuko dira.

## 5. ARGAZKIEN AURKEZPENA

Bi modutan egin ahal izango da:

- **1. Aukera:** Parte hartzaile bakoitzak **gutun-azal** bat aurkeztu edo bidaliko du, **bertan** ondorengoak sartuz:
  1. **CD bakar bat** argazkiekin. Artxiboek, argazki bakoitzari ezarri zaion **izenburu** berbera izango dute.
  2. **Orri bat**, egilearen **datuekin**: izena eta bi abizen, helbidea, telefonoa, NAN eta posta elektronikoa.

Gutun-azalak Elkartearen egoitzara eraman edo bidaliko dira:

- ✓ **Stop Accidentes EAE**  
**Pinondo Etxea,**  
**Pinondo Plaza N°1,**  
**48200 Durango-Bizkaia**

- **2. Aukera:** Argazkiak, bakoitza bere izenburuarekin, posta elektronikoaren bidez bidaliko dira hurrengo helbidera: *prensapaisvasco@stopaccidentes.org*, eta bertan **egilearen datuak** ageriko dira: izena eta bi abizen, helbidea, telefonoa eta NAN zenbakia.

**GARRANTZITSUA; 16 eta 18 urte bitartekoen kasuan, beharrezkoa izango da adingabeko ordezkari legalaren datuak ere igortzea: izena, bi abizen, NANzenbakia, helbidea eta posta elektronikoa. Baita bere sinadura ere, adingabeak lehiaketan parte har dezakeela eta oinarriak onartzen dituela adieraziz.**

**Baldintza horiek ez badira betetzen, argazkia ez da onartuko lehiaketan.**

## **6. EPEAK**

Argazkiak hartzeko azken eguna **2017.ko azaroaren 30 (barne) izango da.**

## **7. SARIAK**

3 Sari emango zaizkie 3 argazki onenei:

**1. saria: Esku-ordenagailu bat eta 250 € esku-dirutan.**

**2. saria: Asteburuko bidaia eta 150 € esku-dirutan.**

**3. saria: Tablet bat eta 100 € esku-dirutan.**

Sariren bat eman gabe geratuko balitz, Stop Accidentes Elkartearen esku geratuko da.

## **8. HAUTAKETARAKO IRIZPIDEAK ETA EPAIMAHAIA**

Argazkiak ondorengo irizpideen arabera hautatuko dira: **mezua, sormena eta arte-kalitatea.**

Epaimahaian ondorengoak izango dira:

- Proiektuari laguntzen dion erakunde bakoitzeko ordezkari bana.
- Stop Accidentes elkarteko ordezkari bat.
- Argazkigintzako aditu bat.

## **9. SARI BANAKETA**

Bai epaimahairen erabakia eta baita sari banaketa non eta noiz izango den ere, Stop Accidentes Elkartearen web gunean, Facebook-ean, Twitter-ean eta blogean emango dira jakitera.

Gainera, irabazleei telefonoz emango zaie berria, epaimahaiak erabakia hartu eta 10 eguneko epearen barruan.

## **10. IRUDIEN GAINKO ESKUBIDEAK**

Lehiaketa honetan parte hartzeak irudien erreproduzio, banaketa eta komunikazio publikorako eskubideak Stop Accidentes EAE Elkarteari doain uztea dakar, Jabetza Intelektualari buruzko Legeak dioenaren arabera eta araudi honek baimentzen duen gehienezko epearen barruan.

Stop Accidentes Elkarteak, hautatutako 12 argazkiekin Bizkaia, Araba eta Gipuzkoan erakusketa ibiltari bat egiteko konpromisoa hartzen du. Bai erakusketa ibiltarirako hautatutako argazkiak eta bai lehiaketara aurkeztutako beste guztiak ere Stop Accidentes Elkartearen esku geratuko dira. Honela, Elkarteak, bere helburu pedagogiko eta sentsibilizaziorakoak lortzeko asmoaz burutzen dituen proiektu eta ekintzetan inolako irabazi asmorik gabe erabili ahal izango ditu argazkiak.

Stop Accidentes Elkarteak argazki hauek erabiltzen dituen kasu guztietan egileen izenak ezagutzera emango ditu.

Stop Accidentes Elkarteak ahalmena du oinarri hauetan aurreikusita ez dagoena ebazteko.

Lehiaketa honetan parte hartzeak oinarri hauek onartzea dakar.

## **11. DATUEN BABESTEA**

Datu Pertsonalak Babesteko Legeari jarraituz, jasotako datu guztiak Elkartearen erantzunkizunpeko fitxategi automatizatu batean bilduko ditugu, lehiaketa era egokian kudeatzeko eta oinarri hauetan zehaztutako helburu espezifikoak betetzeko asmoz. Datuok eskuratu, zuzendu, ezabatu eta aurka egiteko eskubideak indarrean dagoen araudiaren arabera gauzatuko dira.

## **12. LAGUNTZAILEAK**

Lehiaketa hau antolatzeko Eusko Jaurlaritzako Trafiko Zuzendaritzaren, Bizkaiko, Gipuzkoako eta Arabako Aldundien eta Laboral Kutxaren laguntza daukagu.

## **13. INFORMAZIO ETA ARGIBIDEAK**

STOP ACCIDENTES EAE

Pinondo Etxea

Pinondo plaza 1  
48200 Durango - Bizkaia

Tel.: 94 603 30 00/ 627 29 20 70

e-mail: [stoppaisvasco@stopaccidentes.org](mailto:stoppaisvasco@stopaccidentes.org) eta  
[prensapaisvasco@stopaccidentes.org](mailto:prensapaisvasco@stopaccidentes.org)

Web: [www.stopaccidentes.org](http://www.stopaccidentes.org)

Facebook: Stop Accidentes País Vasco

Twitter: [twitter.com/accidentestopPV](https://twitter.com/accidentestopPV)

Blog: [www.blogseitb.com/stopaccidentes](http://www.blogseitb.com/stopaccidentes)

